


UNI

BERTSITATEA



HAU

ASTE!

Tanzania: jende eta koloreen eztanda

Carlos Irijalbaren argazkiak apirilaren 3a arte ikusgai daude Arte Eskolan

Erredakzioa • Iruñea

TANZANIAKO lurrak eta bertako jendea dira Carlos Irijalbak Iruñeko Arte Eskolan duen erakusketaren ardatza. Martxoaren 15ean hasi zen erakusketa eta azken egunetan da orain, apirilaren 3an amaituko da eta.

Tanzaniara egin zuen bidaiaren emaitza dira argazkiak. Serengetti, Kili-manjaro, Ngorongoro, Zanzibar uharteak eta Victoria lakua, eta beste hainbat tokitan igarotako egun eta esperientzien emaitza. Aniztasun paisajistiko eta etniko ikaragarria duen herrialde

bat ezagutzeko aukera eskaintzen du Irijalbak, EHUren Leioako campuseko Arte Ederretako ikasleak.

Afrikako lurretan bakar-bakarrik egin zuen bidaia «han bizi zitekeen bizitza, kolore eta jendeen eztandak sortutako harri durari atea beti irekita zeuzkan ikusle

Carlos Irijalbaren irudiko, garrantzitsuena da irudi batekin igortzen den mezua; mezu horren zerbitzura daude aurretik igarotzen diren guztiak

soil gisa» hasi zuela azpimarratzen du argazkilari iruin-semeak.

Enkoadratze hutsetik ihesi

Helburu jakin batekin abiatu zen Tanzaniara Carlos Irijal-ba. «Espazio jakin batean ko-

roak... eta delikatu bezain primitiboa den natura bera ere bai».


Guztira 40 argazkiz dago osatuta erakusketa. Horieta-tik 20 30 x 45 zentimetroko neurrikoak dira eta beste 20 20 x 30 neurrikoak. Vincent Van Goghen esaldi bat ere irakur daiteke.



Goiko argazkian Irijalba bere argazkietako bat erakusten, ezkerrekoan, erakusketaren irudia.



UNI BERTSITATEKO



AGENDA

Musika

Jabier Muguruzaren kontzertua Donostian. ■ EHUren Donostiako campusean joko du Jabier Muguruzak apirilaren 5ean. Tokia Barriola eraikineko auditorioa izango da eta 13:30etan hasiko da kontzertua.

Erramun Martikorenaren kontzertua EHU. ■ EHUren Leioako campuseko Areto Nagusian Erramun Martikorenak kontzertua eskainiko du gaur bertan, eguerdiko 12:00etan.

Antzerkia

'Busca' antzerki lana Leioako campusean. ■ Apirilaren 5ean *Busca* antzerki lana eskainiko du EHUren Leioako campusean Bubulus antzerki taldeak. Eguerdiko 12:00etan hasiko da antzezlanak, Areto Nagusian.

Lehiaketak

Poesia lehiaketara aurkezteko azken eguna Nafarroako Unibertsitatean. ■ Bihar amaitu-

ko da Nafarroako Unibertsitateak antolatu duen poesia lehiaketara lanak aurkezteko azkenengo epea. Filosofia eta Letren Fakultateak antolatu du. Lanak aurkezteko tokia Kultur eta Gizarte Ekitaldietarako zerbitzua izango da.

Erakusketak

'Koloretako mundua' ikusgai EHU. ■ Francisco Javier Gomez argazkiekin osatutako erakusketa. Apirilaren 5ean hasi eta 14a arte egongo da ikusgai. Leioako campuseko Liburutegiko Erakus-

keta Aretoan jarriko dute erakusketak.

Ikastaroak

Grafologia ikastaroa Nafarroako Unibertsitatean. ■ Hilaren 31n hasiko da Nafarroako Unibertsitatean Laura Lizancos grafopsikologoak eskainiko duen grafologia ikastaroa. Apirilaren 1etik aurrera jarraituko du ikastaro horrek. Norbaitek informazio gehiago nahi izango balu, Goimendi Ikastetxe Nagusiko telefono zenbakira deitu: 948 25 56 00.